


Irurtzun-Andoain autobidea

Azpirotz: nahi eta ezin

Autobideko plataforma eusteko eraiki zituzten harresietako oinarria hondatzen ari da

Irurtzun-Andoain autobideak behar duen plataforma Azpirotz gainean zer-nola finkatuko duten airean dago oraindik. Zati horretan lanak hasi zirenetik, 1989ko azaroan, zailtasunak bat bestearen atzetik etorri dira. Mendatearen malda handiak, luraren kohesiorik ezak eta hezetasunak lurjausi ugari eragin izan ditu eta oraingoz ezin izan dute ezer finkatu. Eta ez dirudi epe laburrean lortuko dutenik, autobidearen plataformari eusteko eraiki dituzten harresiak oinarritik hondatzen ari dira eta. Azpirotzko alkateak dioenez, «egin zuten proiektua paper gainean eta orain atera zaie dena aldrebes». Nafarroako Gobernuaren arabera, berriz, ez dago kezkatzeko arrazoirik, «materialak bakarrik egin bait du huts».



JOXE

ANA UNANUE / IRUÑEA

Azpirotz gainetik autobidea eraiki nahian dabilzan teknikoek buruhauste ugari dituzte. Plataforma eutsi beharko luketeen harresiak eraikitzeke sei hilabete eman zituzten, baina irailaz geroztik lanek ez dute aurrera egin Azpirotzko gain horretan.

Bi kilometroko zatian eraikitako harresi 'ekologikoen' oinarria hausten ari da eta egunetik egunera hondatzen doa, errepidetik ikus daitekeenez. Harresiak hormigoizko kaxekin eraiki zituzten, bat bestearen gainean jarritik, kaxen barrena lurrez bete ahal izateko. Asmoa bertan hazia botatzea zen, belarrak hormigoia estal zezan —hortik datorkio harresiari 'ekologiko' izena—.

Sistema hori Suitzatik ekarritakoa da eta, teknikoek diotenez, sei metroko altura arte segurua da. Azpirotzko maldan, ordea, harresiak hogeiturotik gora ditu eta oinarriaren jarritako hormigoizko kaxak hautsi egin dira. Teknikoek ez daukate argi zerk egin duen huts. Batzuen iritziz, harresien alturagatik presioa gehiegizkoa gertatu da oinarriarentzat. Beste batzuek diotenez, berriz, luraren kohesio ezak mugitu erazi ditu kaxak. Elsamex, lanak zuzentzeaz arduratzen den enpresak nahiago du gertatutakoaren berririk ez ematea.

Jesus Gonzalez Nafarroako Gobernuaren Errepide zerbiztuko zuzendariak EGUNKARIARI azaldu dionez, egia da harresiak hondatzen ari di-

✓ Azpirotz gainetik pasatzea posible ez zela uste zuen tekniko batek lanak utzi ditu, alkateak jakin erazi duenez.

Egunotan proba geologikoak egiten dabilza, luraren konposaketak eskaintzen dituen aukerak ezagutzeko.

rela, «baina ez dago kezkatzeko arrazoirik, materialek egin bait dute huts». Gonzalezen arabera, hormigoizko kaxak ez zeuden behar bezala eginak eta horregatik hautsi dira, baina ez dago egitura arazorik Azpirotzen.

NOLA KONPONDU JAKIN GABE

Gertatutakoa konpontzeko zer egingo duten ez dakitela aitortu du Errepide arduradunak. Nafarroako Gobernuak aukera ezberdinak aztertzen ari da, ez bait daki zer den hobe: harresi guztiak kendu ala konpontzen saiatu.

Nafarroako Gobernuaren plan-gintzaren arabera, Azpirotzko zatia 1992ko abenduan amaituko da. Lanak atzeratuta badabilza ere, epea beteko dutela dio Gonzalezek. Azpi-

HARRESIEN parean pilatutako lurak beheko hormigoizko kaxak hobeki ikustea eragozten badu ere, batzuk hondatzen hasi direla nabari daiteke. Alkateak dioenez, Azpirotz gaineko kilometro t'erdian eraikitako harresiak guztiz hautsi daude oinarritik, baina lanak zaintzen dituzten goardek ez zitoten gehiago hurbiltzeko baimenik eman gure argazkilaritari.

roztairek, berriz, ez dute hain argi ikusten hori, lanak hasi zirenetik inguruak ezarri dituen zailtasunak ongi ezagutzen dituzte eta.

Mustilloko tuneletik (Gorriti eta Azpirotz artean) Palletakogainera doan zatian, luraren egitura litologikoak, aldapa handiak —% 50ekoa gutxienez eta % 80koa zenbait puntutan—, eta hezetasunak zaildu egiten du luraren ezer finkatzea. Horren lekuko ditugu azken urtean gertatutako lurjausiak.

Jose Miguel Etxetxikia Azpirotzko alkateak esan digunez, Azpirotz zeharkatzeko modurik ez zegoela uste zuen tekniko batek lanak utzi ditu. Tunel bat egitearen alde omen zegoen hura. Gobernuak Jesus Gonzalezek, berriz, gezurtatu egin du inork lanak utzi dituenik eta Azpirotzen tunel bat egitea «barregarria» dela dio.

LANAK ETA NEGUA Aldi berean, neguan lanak etengo dituenik ukatu egin du. Zenbait komunikabidetan plazaratutakoaren arabera, Nafarroako Gobernuak hiru hilabeteetako oporrak eman nahi zizkien autobideko langileei, eguraldiak la-

nerako inposatzen dituen baldintza kaskarrak direla eta. Gonzalezek azaldu duenez, «lanak polikiago egingo dira eguraldiak horretara behartzen bagaitu, baina ez dago gelditzeko asmoarik».

Harresiaren hondamenaren ondorioz, lanak impasse egoeran daude Azpirotz gainean. Makinak leku batetik bestera dabilza, norabide zehatzik gabe. Egunotan frogak geologikoak egiten ibili dira, luraren konposaketa hobeto ezagutu ahal izateko. Azpirotzko alkatearen iritziz, horrek adierazten du lanak hasi aurretik ez zituztela behar adina frogak egin. Bere esanetan, «egin zuten proiektu bat paper gainean eta orain atera zaie dena aldrebes».

Irurtzun-Andoain autobidea eraiki nahian dabilzanek ez dute bide erraza izan. Lurraldea koordinatutako inguruan bildutako oposizioari eta ETA erakunde armatuaren mehatxuei egin behar izan diete aurre. Orain arazoak bestelakoak dira, ordea. Azpirotzen, nahiz eta herriarrek ez zuten begi onez ikusten buru gainean autobidea izatea, ez da oposizio aktiborik izan. Azpirotzen ingurua bakarrik jarri da kontra.



I. MARTIARENA